



Arartekoaren 2019R-2094-17 Ebazpena, 2019ko otsailaren 25ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzen dituen ebazpen bat.

Aurrekariak

1-. Herritar batek kexa aurkeztu du Arartekoan, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu baitizkio eta ez baitago ados.

Espedientean bildutako dokumentazioan adierazitakoaren arabera, 2017ko uztailaren 6an Lanbidek honako arrazoi hauek zirela tarteko aipatutako bi prestazioak ukatu zizkiola jakinarazi zion eskatzaileari:

“-Hay más unidades de convivencia que habitaciones. Cuatro unidades de convivencia y 2 habitaciones. Baja de xxxx xxx, que a fecha de la solicitud aún estaba de alta en el padrón y sigue habiendo tres UCs.

-No cumplir con el requisito de empadronamiento. Deberá justificar 3 años de padrón continuados o cumplir alguna excepción.

-No ser titular de la Renta de Garantía de Ingresos.

-Carecer de gastos justificables por vivienda o alojamiento habitual. El contrato de alquiler y la autorización para subarrendar no están firmados por todos los propietarios.

-No acreditar permiso de arrendatario/a para el subarriendo. La autorización para subarrendar no están firmados por todos los propietarios.”

Kexagileak aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen 2017ko uztailaren 11n (Lanbideren egiaztagiraren erregistro-zenbakia: 2017/246736). Errekurtso horrekin batera, hainbat dokumentu aurkeztu zituen, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko baldintzak betetzen zituela egiaztatze aldera.

Zehazki, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorritako lan-bizitzaren agiria erantsi zuen. Dokumentu horrek egiaztatzen du agiriaren titularra 2.684 egunez, hau da, 7 urtez eta 4 hilabetez gutxi gorabehera, egon dela Gizarte Segurantzaren sisteman alta emanda. Dokumentuaren arabera, era berean, 2005eko azarotik





2016ko uztaiera bitarteko datuak dira jaso direnak. Kexagileak 2017ko otsailaren 20an aurkeztu zuen eskaria (Lanbideren egiaztagiriaren erregistro-zenbakia: 2017/74666).

Gainera, kexagilearen esanetan, agiri horiek instrukzio-fasean ere aurkeztu ziren. Lanbideko erregistroko sarrera-zigilua aztertu ondoren egiaztatu ahal izan denez, kexagileak honako agiri hauek aurkeztu zituen 2017ko apirilaren 24an: azpierrentamenduaren kontratuaren kopia, azpierrentamenduaren baimena, azpierrentamenduaren ordainagiriak, eta errolda-ziurtagiria.

Era berean, errekurtsoren idazkiarekin batera, berriz ere aurkeztu zituen azpierrentamenduaren kontratua, azpierrentamenduaren baimena eta alokairuaren ordainagiria. Prestazioak ukatzeko ebazpenean baieztatzen bada ere *"el contrato de alquiler y la autorización para subarrendar no están firmados por todos los propietarios"*, kexaren sustatzaileak adierazi du berak, azpierrentari hutsa baino ez denez gero, ez zituela sinatu errentamenduaren kontratua eta ez zekiela jabea etxebizitzaren titularretako bat zela, beste pertsona batekin batera, hots, bere emaztearekin batera, datu hori errentamenduaren kontratuan agertzen zelako eta bera ez zelako bertan sartzen.

Azkenik, Barakaldoko Udalak igorritako bi errolda-ziurtagiri aurkeztu zituen kexagileak, eta, horien bidez, egiaztatu zuen Lanbidek aipatutako pertsonari, bere helbideko erroldan inskribatuta agertzen denari, baja-espedita bat abiarazi ziotela bidegabe izena emateagatik.

2-. Ondoren, esku artean dugun kexaren izapideak abian zirela, interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoren ebazpena jaso zuen. Ebazpenak hau dio:

"XXXX XXX XXX cumple 1 año de residencia efectiva en la localidad de Barakaldo en el momento de la solicitud pero no llega a 3 años mentados. Es por ello por lo que aporta su vida laboral en aras de acreditar cinco años de actividad laboral remunerada. Concretamente, acredita 2760 días, más de 5 años de actividad laboral remunerada. Sin embargo, únicamente su actividad como autónomo en el año 2016 ha tenido lugar en el territorio de la Comunidad Autónoma Vasca, 153 días. Por lo tanto, no podemos dar cumplido el requisito del padrón y la residencia efectiva¹."

Por otro lado, al recurrente se le requirió en fecha de 6 de abril de 2017 documentación relativa a su contrato de alquiler. Concretamente se requirió:

¹ Guk azpimarratua.



*“acreditar permiso del propietario/arrendador para el subarriendo; la autorización aportada no está firmada por todos los propietarios de la vivienda. Por otro lado, tener gastos justificables por alquiler de vivienda o alojamiento habitual. **En el contrato de alquiler falta el número de referencia catastral y la firma de todos los propietarios, además no se puede añadir información con posterioridad a la firma y los recibos de subarriendo los tiene que firmar xxxx xxxxxx**”.*

XXX XXX XXX no presentó la documentación requerida en plazo. Junto al recurso aporta documentación, no siendo este el momento procesal adecuado para entrar a valorarla, pues los requisitos deben ser cumplidos en el momento de la solicitud.”

3-. Azaldutako kexari izapide egokia emateko xedez, Arartekoak eskaera egin zion Lanbideri eta, horren bidez, 30 eguneko epean kexaren xedearen inguruabar ezberdinei lotutako informazioa emateko eskatu zion. Era berean, gogoeta batzuk helarazi zizkion, ezer erabaki aurretik. Horiek ez errepikatzearen, jarraian aipatuko dira.

4-. Azkenik, erakunde honen erregistroan Lanbideren idazki bat sartu da, azaldutako gaiei erantzuten diona:

“Informazio eskaeran arartekoak aipatu moduan, Lanbiden 2017/RGI/004610 espediente zenbakia duen prozeduraren barruan DBSErako eskubidea ukatu zitzaion kexagileari. Eskubidearen ukatzea hainbat ziotan arrazoitu zen, bai lehen ebazpenean baita berrezartze helegitearen ebazpenean ere. Lehen arrazoia, informazio eskaeran aipatu duzun moduan, 18/2008 abenduaren 23ko Legearen 16garren xedapenean eta 147/2010 maiatzak 25eko Dekretuko 9. xedapenean ezarritako betekizunak ez betetzea izan zen. Urtebeteko aurretiazko eroldaren betebeharra betetzen zuen arren, 3 urteko eroldarena betetzen ez duela ikusita, 5 urteko lan jarduera egiaztatu beharko litzateke kasu honetan, 18/2008 legearen 16.b) xedapenean jasotakoaren arabera.

*Eskaeraren aurretik bost urtetako lan jardueraren, afera honen inguruko **interpretazio ugari egon litezkeen arren**, kasu zehatz honetan, arartekoak gomendatutako interpretazioa jarraitzea ez litzateke nahikoa kexagilearen DSBEren eskubidea aitortzeko.*





*Kasu honetan **eskubidearen ukatzearen bestelako arrazoiak, eskubidea aitortzeko eskaerarekin dute zerikusia. 2017ko apirilaren 6ean, administrazio honek entzuteko izapide baten berri eman zion, eskatzaileari, izapide honek administrazioaren ustez, eskatzaileak betetzen ez zituen hainbat betekizunekin zuen zerikusia. Zehazki, **alokairu eta berralokatzeko eskubidearen inguruko zenbait dokumentu aurkeztea eskatu zion administrazioak eta bere bikotearen egoeraren inguruko zenbait dokumentu ere. Arartekoak esandakoaren aurka, eskatzaileak ez zuen eskatutako dokumentazioa aurkeztu, eta administrazio honek jarraitzen duen espedientean ez dago 2017ko apirilean aurkeztutako dokumentaziorik, bai ordea 2017ko uztailaren 24ean aurkeztutakoa. Aurkatutako ebazpenaren data baino 3 hilabete beranduago hain zuzen.*****

*Beraz, lan jardueraren afera, alde batera utzita ere, kexagileak ez du espediente horren barruan behintzat, DSBEn titularra izateko eskubiderik, **ez baitzuen eskaera eta honi atxiki beharreko dokumentazio guztia eskatutakoan aurkeztu, honenbestez 39/2015 Legearen 68 xedapenean eta 147/2010 dekretuaren 30 xedapenean ezarritakoa jarraituz bere eskaera bertan behera utzitakotzat jo behar luke administrazioak.***

Hortaz, beharrezkoak diren egitate- eta zuzenbide-elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin ditugu:

Gogoetak

1-. Lanbidek kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eskariak ukatzeko ebazpena ezarri zuen, funtsean hiru elementu hauen zioz:

-Lehenik eta behin, Lanbideren ustez urratu egin da Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak 16. b) artikuluan aurreikusitako baldintza, azaroaren 24ko 4/2011 Legea aldatu ondorengo idazkuntzan, hau da, eskaria egin aurreko azken 3 urteetan zehar EAEn etenik gabe eta eraginkortasunez bizi izana eta erroldatuta egon izana, lan-jarduera ordainduan gutxienez bost urte egiaztatu izana edo EAEn azken 10 urteetatik gutxienez 5 urtez jarraian erroldatuta egon izana mintzagai dituen baldintza.





Arartekoak lehendik ere aurreratu zuen, informazio-eskarian bertan, ez zegoela ados enpleguko erakunde autonomoak aukerako berraztertze errekurtsoaren ebazpenean egin zuen interpretazioarekin, bere ustez araudiaren xedea, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak (Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duenak) sartutako aldaketaren ondoren, ez baitzen diru-sarrerak bermatzeko errentaren titulartasunerako eskubidea murriztea. Zehatzago adierazi zenez, interesdunek EAEn ordaindutako lan-jarduera bat bost urtez burutuz gero, litekeena da pertsona hori aipatutako denboran EAEn bizi izana. Horren arabera, kexagileak baldintza hau beteko luke: EAEn hiru urtez errolatuta egon eta benetan bizi izana egiaztatzea. Legegileak baldintza hori egiaztatze beste modu bat ezarri zuen (ordaindutako lan-jarduera bat bost urtez burutu izana), hain zuzen ere, babestu beharreko beste inguruabar batzuk baloratu zituelako. Ordaindutako lan-jarduera EAEn soilik burutu ahal izango balitz, ez luke zentzurik izango aipatutako bi kasuak bereizteak: aski litzateke EAEn hiru urtez errolatuta egon eta benetan bizi izana egiaztatzea.

Hala ere, Lanbidek erakunde honi igorri zion erantzunean ondorioztatu daitekeenez, araudiaren interpretazio hori aldatu egin da, eta txostenak berak dioenaren arabera, azkenean ez da izan hori aukerako berraztertze errekurtsoa ukatzeko arrazoietako bat.

-Bigarrenik, Lanbidek prestazioak ukatu zituen, azpierrentari gisa bizileku zuen etxebizitzako logela-kopurua ez zetorrelako bat bertan bizi ziren bizikidetzak unitateen kopuruarekin.

Enpleguko erakunde autonomoak, aukerako berraztertze errekurtsoa ebaztean, ez du bere erabakia gertaera horietan oinarritzen. Erakunde honen informazio-eskariari erantzuteko igorritako txostenean ere ez du halakorik aipatzen.

Horren harira, azkenean Lanbidek kexagilearen erreklamazioak baietsi dituela ondorioztatu du Arartekoak, hau da, Barakaldoko Udalak igorritako bi errolda-ziurtagiriak onartu dituela, eta, horien bidez, kexagileak egiaztatu egin duela Lanbidek prestazioak ukatzeko ebazpenean aipatutako pertsonari baja espediente bat abiarazi ziotela bidegabe izena emateagatik.

Nolanahi ere, Arartekoak, dakizunez, Lanbideren interpretazioarekin bat ez datorren beste bat egiten du gai horretan. Izan ere, Lanbideren ustez etxebizitza batean bizikidetzak-unitate bat baino gehiago egoteak *per se* eragiten du baldintza urratzea.





Erakunde honek gai hori aztertu du honako ebazpenean; Arartekoaren 2018R-2785-17 Ebazpena, 2018ko ekainaren 21ekoa. Horren bidez, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu dio berriz azter dezala pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria atzera botatzeko erabakia.²

Bertan, honako hau azpimarratzen du, beste gogoetan batzuen artean: *“hala, funtsean, etxebizitzan dauden gela kopurua baino pertsona gehiago erroldatuta izatea, egoera hori ezin zaiela apierrentariei egotzi; izan ere, kexagileak ez du erroldan inor inskribatu, eta ondasun baten araubide ekonomikoari buruz erabakitze ahalmunik ere ez du (haren titulartasuna beste pertsona bati dagokio).*

-Azkenik, etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskariarekin lotuago, prestazioa ukatzeko arrazoitzat gehitzen da baldintzak bete izanari buruzko dokumentazioa aurkeztu ez izana; zehazki, etxebizitza gaitzen duen tituluaren baliozkotasunari buruzko baldintzak, hau da, azpierrentamendurako baimena eta azpierrentamenduaren kontratua, horietan berariaz jasota ondasun higiezinaren jabe guztiak eta higiezinaren katastro-erreferentzia.

2-. Aukerako berraztertze errekurtsoren ebazpenean eta erakunde honi igorritako txostenean azaldutako informazioaren arabera, prestazioak ukatzeko hirugarren arrazoa izan da, azkenean, Lanbidek interesdunaren eskaria ukatzeko erabakian oinarri gisa azaldu duen bakarra: adierazi zenez, Administrazio horren ustez prestazioen eskatzaileak ez du aurkeztu eskatu zaion dokumentazioa, baldintzak betetzen dituela egiaztatze. Erakunde honi igorritako txostenean, zehazki, honako hau baieztatu zen: *“administrazio honek jarraitzen duen espedientean ez dago 2017ko apirilean aurkeztutako dokumentaziorik, bai ordea 2017ko uztailaren 24ean aurkeztutakoa. Aurkatutako ebazpenaren data baino 3 hilabete beranduago hain zuzen.”*

Horren harira, honako hau argitu nahiko nizuke: espedientean bildutako dokumentazioari erreparatuta, egiazta daiteke dokumentazioa 2017ko apirilaren 24an aurkeztu zuela. Izan ere, azpierrentamendurako kontratuan, azpierrentamenduaren baimenean, azpierrentamenduaren ordainagirietan eta errolda-

² Enpleguko erakunde autonomoak ez dio erantzunik eman gomendio honi eta, azkenean, Arartekoak kexa espedientea itxi egin du; erantzunik jaso ez izanak, gure gomendioa ez dela onartua izan pentsarazten baitigu.



ziurtagirian jarritako Lanbideren zigiluan data hori ageri da. Zigilua, zehazki, Barakaldoko Lanbide Bulegokoa da.

Nolanahi ere, nahiz eta Arartekoak ere uste duen, Lanbidek bezala, eskaria aurkezten den unean bertan bete behar direla diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioen onuradun izateko baldintzak, ezin dugu ahaztu zuzendu egin daitezkeela, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 30.3. artikulua ezarritakoari jarraikiz.

Gainera, gertaeren azalpenean adierazi zen bezala, kexagileak berriz ere aurkeztu zuen eskatutako dokumentazioaren kopia; hain zuzen ere, aukerako berraztertze errekurtsoarekin batera.

Lanbideko zuzendari nagusiaren txostenak berriz ere adierazi du herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta edo/eta etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioa aitortu dakion baldintzak betetzen direlako egiaztagiria ezin direla baliozkotzat jo, aukerako berraztertze errekurtsoak ez direlako espedientean agiri berriak aurkezteko fase egokia.

Lanbideren jarrera horrek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean 39/2015 Legea) 118.1. artikulua bigarren paragrafoan dauka araudi-oinarria. Horren arabera, *"Errekurtsoak ebaztean, ez da kontuan hartuko errekurtso-jartzaileak alegazioen izapidean aurkeztu ez duen egitate, agiri eta alegaziorik, alegazioen izapidean aurkezteko aukera izan bazuen. Ezin eskatuko da frogak egiteko, orobat, errekurtutako ebazpena eman zen prozeduran ez egin izana interesdunari egotz dakiokeenean"*. Hala ere, jarraian azaltzen den bezala, araudi-aurreikuspen hori zehaztu egiten den jurisprudentzian.

Administrazioak errezeloa du *"elementu berriak"* gehitzeari dagokionez, administrazio-jurisdikzioa soilik berrikusteko balio duen jurisdikziotzat hartzen zelako lehen. Izan ere, asko eztabaidatu da horren inguruan eta, gaur egun, esan daiteke ideia hori neurri batean deuseztatu egin dela.

Hain zuzen ere, Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak 2010eko martxoaren 17ko Epaian aitortu zuen mota guztietako elementuak, egitateak edo dokumentuak gehitzeko zilegitasuna, baldin eta horrekin interes orokorrak hobeto bermatzen dituen erabaki bat hartzea ahalbidetzen den:



“Sexto.- El análisis de la pretensión impugnatoria debe comenzar precisamente por esta última parte de la resolución que acabamos de transcribir. En ella se sostiene una tesis errónea sobre la función de los recursos administrativos, a resultas de la cual no cabría introducir en éstos "elementos nuevos" sobre los que no hubiera podido pronunciarse el órgano que dictó la resolución impugnada.

Es errónea la tesis, decimos, y parte de una concepción no aceptable del "carácter revisor" de los recursos administrativos que difiere de la que preside los artículos 107 a 119 de la Ley 30/1992 (RCL 1992, 2512 , 2775 y RCL 1993, 246) , de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común . En contra de lo afirmado por la resolución que examinamos, es lícito introducir en los recursos de alzada o de reposición hechos, elementos o documentos nuevos, no recogidos en el expediente originario. La posibilidad está expresamente prevista en el artículo 112.1 de la Ley 30/1992 (e implícita asimismo en el apartado tercero del artículo 113) y es coherente, por lo demás, con la función propia de estos mecanismos de revisión de la actividad administrativa.

Los recursos administrativos, además de garantía para los administrados, son también un instrumento de control interno de la actividad de la Administración en la que un órgano superior -o el mismo, en reposición- revisa en toda su extensión lo hecho por otro, sin estar necesariamente vinculado al análisis de los meros elementos de hecho o derecho que este último hubiera tenido o podido tener en cuenta. Lo que se pretende con los recursos es posibilitar una mejor decisión que sirva con objetividad los intereses generales, y ello será tanto más factible cuantos más elementos de juicio se pongan a disposición de quien ha de decidir finalmente sobre la impugnación.”

Hortaz, Auzitegi Gorenak ondorioztatu egin du “elementu berriak” gehitzeko aukerak Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen Legean daukala araudi-babesa. Zehazki, jotzen du “beren-beregi aurreikusita” dagoela 39/2015 Legearen 118.1. artikularen lehenengo paragrafoan eta “inplizituki” Lege beraren 119.3. artikuluan:

Aipatu Legearen 118.1. artikulua honako hau dio bere lehen paragrafoan: “Jatorrizko espedientean jaso ez diren beste egitate edo agiri batzuk hartu behar badira kontuan, haien berri emango zaie interesdunei, gutxienez hamar egun eta gehienez hamabost iraungo duen epe batean alegazioak egin eta egoki deritzoten agiri eta egiaztagiriak aurkez ditzaten.”



Legearen 119.3. artikulua honakoa ezartzen du: *“Errekurtsoa ebazten duen organoak prozedurako arazo guztiak argituko ditu, bai formazkoak bai edukizkoak, interesdunek alegatuak izan edo ez. Interesdunek alegatu ez dituzten arazoen gainean ebatzi baino lehen, entzun egingo zaie interesdunei. Nolanahi ere, errekurtsio-jartzaileak eskatutakoaren harikoa izango da ebazpena, eta ezin izango du inoiz okerragotu haren hasierako egoera. ”*

Beraz, adostasun-printzipioa bermatuta eta kexagilearen egoera okertzea ezinezkoa denez, errekurtsioa ezagutzen duen organoak espedientean zehar sortzen diren kontu guztiak ebatzi beharko ditu, interesdunak horiek alegatu dituen edo ez gorabehera.

Horrez gain, adierazi beharra dago jurisprudentzia-doktrina horrek Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 56.3. artikulua duela oinarri. Zehazki, horrek aukera ematen dio interesdunari, demandarekin batera, eskura duen dokumentazio guztia aurkezteko, bere eskubidea egiaztatze aldera. Legezko xedapen horretatik abiatuta, Auzitegi Gorenak honako hau erabaki du: *“(...) si esto es así en vía jurisdiccional, con más razón debe ser así cuando la documentación se aporta en sede de recurso de reposición”* Beraz, aurreko lerroetan adierazi den moduan, egoitza judizialean frogabide berriak erabili ahal badira, are zentzuzkoagoa da horiek berraztertzeo administrazio-egoitzan aurkeztu ahal izatea.

Aurretik esandako guztiagatik, Arartekoak uste du zuzena dela adieraztea, administrazioak agiri jakin batzuen berri badu, hau da, araudian aurreikusitako **betekizunak betetzen direla modu frogagarrian egiaztatzen** duen dokumentazioaren berri badu, horiek kontuan hartu beharko liratekeela. Beraz, errekurtsio-fasean hori aurkezteak ez luke eragin beharko dokumentazioa ez onartzea, hura epez kanpo aurkeztu dela jota.

3- Lanbidek antzeman duenez, eskatzaileak azpierrentamenduaren baimen bat aurkeztu zuen, etxebizitzako jabeetako batek soilik sinatuta, eta kontratu hartan ez zen jasotzen ondasun higiezinaren katastroko erreferentzia; enpleguko organismo autonomoaren arabera, hori ez litzateke aski etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuko 12. artikulua betetzeko. Horren arabera, izan ere, eskariarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira: *“a) Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriarekin aurre egin nahi zaien ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren gastuen egiaztatgiriak, hots, errentamendu-*



kontratua edo, hala badagokio, errentamenduko, azpierrentamenduko, baterako alokairuko, ostatu hartzeko eta gelen alokairuko kontratua.”

Kexagileak entzunaldi-izapideari erantzun zion, eta instrukzio-fasean erantsi zituen etxebizitzaren okupazio-titulua egiaztatzeko agiriak, hau da, azpierrentamenduaren kontratua eta azpierrentamenduaren baimena, bai eta alokairuaren ordainagiria ere. Agiri horiek dira eskabidearekin batera aurkeztu behar direnak, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 29.g) artikulua arabera, eta, beraz, bete egin dira diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioen titular izateko baldintzak, Diru-sarrerak bermatzeko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9. artikuluan eta urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Arartekoaren ustez, etxebizitzaren jabe bat baino gehiago egoteak ez du azpierrentamenduaren kontratua indarrrik gabe uzten. Are gutxiago kontuan hartuta **etxebizitzaren bi jabeak ezkontideak zirela**; datu horrek, Arartekoaren iritziz, oinarri handiagoa ematen dio kexagileak azaldutako justifikazioari, esaten duenean ez zekiela jabe bat baino gehiago zegoela edo bi jabeekideek sinatutako agiriak aurkeztu behar zirela. Interesduna, kasu honetan, fede oneko hirugarren pertsona bat da, kontratu baten (kasu honetan, errentamendu-kontratu baten) sinatzaileen artean adostutako ezkontzazko araubide ekonomikoa zein den jakiteko modurik ez duena, kontratu horren parte ere ez baitzen izan, eta, beraz, ezta **azpierrentamenduarena ere, bertan jabeetako baten datuak baino ez baitziren ageri**, hots, errentamenduaren kontratua baimendu eta sinatu zuenarenak.

Hau da, Arartekoaren ustez, azpierrentamenduaren kontratua, azpierrentamenduaren baimena eta alokairuaren ordainagiriak aurkeztu izana aski dokumentazio da Lanbide zalantzan jartzen ari den baldintzak bete egiten direla egiaztatzeko, eta jabeetako baten sinadura falta dela edo kontratuaren edukian katastroko erreferentzia sartu ez dela adieraztea bezalako elementu formalek ez dute zertan esan nahi interesdunak baldintza egokiak betetzen ez dituenik edo kontratua zalantzan jarri behar denik.

Nolanahi ere, Lanbideak azkenean uste badu bi eskariak ebatzi aurreko fasean aurkeztu zen dokumentazioa ez zela baliagarria ez zuelako etxebizitzaren bi titularren sinadura, jarduerarik egokiena, erakunde honen iritziz, honako hau litzateke: berriz ere eskatzea aurkeztutako ageriak zuzen daitezela. Doktrinak eta jurisprudenziak zuzentze-printzipioan babesgabetasuna saihesteko Konstituzioaren printzipioa ikusi dute. Prozeduraren ikuspegitik *in dubio pro actione* printzipioaren bitartez zehazten da edo, beste modu batera esanda, ekintzak gauzatzearekiko interpretaziorik



faboragarrienaren arau orokorraren bidez (Konstituzio Auzitegiaren Epaia, 1985eko irailaren 30ekoa, eta Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1. Sekzioari dagokion 1455/1989 Epaia, 1989ko azaroaren 14koa), printzipio antiformalistarekin batera.

Bestela, hartuko litzatekeen erabakia, prestazioak ukatzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-babesaren sistemak lortu nahi dituen xedeen kontrakoa litzateke. Sistema hori, zehazki, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeko arrazoien azalpenean agertzen da, besteak beste. Honako hau dio Lege horren 1. artikulua: *“Lege honen xedea da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea, eta, horren barruan, beharrezko prestazio ekonomikoak eta tresnak izateko eskubidea arautzea, herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko, bai bazterkeria-arriskuari aurre egiten, bai bazterkeria pertsonala, soziala eta laborala arintzen, bai gizarteratzea errazten.”*

4-. Azkenik, erakunde honen ustez, kontuan hartuta kearen titularrak gehitu egin duela bere bizikidetzaren unitatea bi helduk eta adingabe batek osatzen dutela, komenigarritzat jo du berriz ere azpimarratzea beharrezkoa dela **adingabearen interes gorenerako eskubidea** zaintzea, gure antolamendu juridikoaren parte baita (Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen 1989ko Biltzarra, uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa eta urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa). Horrek diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioetan duen eragina, zehazki, erakunde honek ere aztertu zuen, apirilaren 8ko 2/2015 gomendio orokorrean. *“Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman.”*

Horregatik guztiagatik, Arartekoak uste du adierazitako aginduen arabera eta 18/2008 Legearen izpirituen arabera, kasu honetan Lanbidek egindakoa ez den beste interpretazio bat egin daitekeela, eta, horrenbestez, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11. b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako gomendio hau egiten du:





Gomendioa

Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak ukatzeko emandako ebazpena berrikusteko gomendatzen du Arartekoak, uste duelako, aurretik adierazitako gogoetetan oinarrituz, araudi aplikagarriak horien titular izateko eskatzen dituen betekizunak betetzen dituela prestazioen eskatzaileak.

